



DANI BLANCO

Angel Erro

◆ IDAZLEA

## Maitasunez

“AMODIOA EZ DA EXISTITZEN, baina bere ondorioak bai”, aurkitu dut paperezko musuzapi batean nire letraz idatzita. Maitasunaz tarteka idaztea da, poetek idazten dakiten eta taberna batean beste zeregin hoberik ez duen gainerako jende guztiarekin partekatzan duten idatzizko mania gutxienetakoa.

\* \* \*


Orain gutxi Iñigo Astiz eta *Baita hondakinak* ere bere poema liburuko hainbat irakurle bildu ziren, lan horixe hizpide. Partaideetako batek Astizi liburuak (edo akaso berak) erromantikotik gutxi izatea leporatu zion. Poetak maitasunari buruz zuen kontzepzioa bikainki azaldu zuen. Alegatu zituenetatik gogoan dut esan zuela edozein giza harreman prekariora dela eta maitasunezkoa ere bai, eta haren gainean eraiki den berbontzikeria guztitik aske ibili nahi zuela berak –gaizki aipatzen ari naiz Astiz, nire azalpenak ez duelako, bereak bezala, distirarik–. Amodioa ez da existitzen, baina bai bere hondakinak.

\* \* \*

Amodioa gaizkiulertu askoren metaketa da. Azokan ibili eta jaka bat eta Lukrezioaren liburu bat (Patxiki lerrakeen modura) feriatu ondoren, garagardo pare bat hartzera eseri gara. Orduantxe sentitu dudana zorionaldia nahasten badut eta izen handios bat paratzen badiot errua nirea baino ez da.

\* \* \*

Maiteminduta gaudenean –dio kontuaz xehekien idatzi duen idazleak, zeinaren izena aipatzea merezi ez baitu–, amodioa hain da handia non ez zaigun barruan sartzen: maite dugun pertsonarengantz irradiatzen du, bertan bidea mozten dion superfiziei bat topatzen du, abiapuntura itzularazita; eta talkak bihurtzen digun samurtasun hori, geure samurtasuna bera dena, besteren sentimendutzat jotzen dugu, eta gogokoagoa dugu gure maitasuna itzul-tzean joatean baino, ez baitugu nabaritzen geuregandik datorrela.



Antton Olariaga

\* \* \*

Terrazan eserita, maitale batek besteari galdetu dio, erretorikoki (nahi nuke pentsatu), ea nola maitatzen ahal duen hainbeste, “*how can I love you so much?*”. Erantzuna zinikotzat har liteke, baina poetikotzat hartu du: “Zu eta zure maitasunaren artean suertatu naiz”.

\* \* \*

Amodioa (gutxienez) biren arteko gezur partekatu da. Amodioa hitzen bidezkoa da. Begietatik desiratzen dugu. Hizkuntzatik maitemintzen gara. Horregatik da amodioa poeten eraikuntza eta horregatik behar lukete poetek deseraiki eta desberbatu, gorpuztera itzuli.

\* \* \*

Maitaleek elkarri etengabe elkar maite ote duten galdetzeak erakusten du zer osagai badaezpadakoez egina dagoen. Maitale bat gezurra esatera behartuta dago, jolasean jarraitu nahi izanez gero, edo –bera ohartu gabe– maitatzera behartuta dago.

\* \* \*

Lukrezioaren *De rerum naturat*ik aipu bat baino ez dut ezagutzen, sexu harremanaren deskripzio ederra, Sarrionandiaren itzulpenean maiz irakurria. Liburuaren gaztelaniazko itzulpenean bilatu dut, aurkibidean ere, eta neke zait pasartea aurkitzea. Editoreak “*El amor*” epigrafepean paratu du latinez *De rebus veneriis* dena (Venusen kontuak), modu adierazkorrean hazia- ren nondik norakoekin hasten dena.

\* \* \*

Amodioa ez da (hitz bakar batean) existitzen eta horren beharrik ez genuela sinetsita nengoen. Kontzeptu absolutuen artean gutxien kuestionatua da eta eraistea lan handiena eman lezakeena. Hala ere, bitxia egiten zait bizitzen ari den berpizkundera. Bada maitasuna aldarrika ari den *queer* filosoforik, eta *queer* izan gabe euskal filosoforik ere bai. Beude. Nik lehenagotik daukat hementxe aipatu ditudan eta aipatu ez ditudan egile guztiek maitasunaz (sic) zer idatzi duten. ■

